


IKUSI, BALIOETSI, EKIN.

Indarkeria lesbianen
eta homosexualen
harremanetan



Sarrera

Maitasun eta sexu harremanetan tratu txarrak eta indarkeria egotea ez da soilik harreman heterosexualen kontua. Bi gizon edota bi emakumez osaturiko bikote edo harremanetan ere benetazko indarkeria egoerak egoten dira, indarkeria fisiko nahiz psikologikokoak. Genero bereko pertsonen artean gertatzen den indarkeria hori, intragenerokoa deitua, isilean gelditu ohi da, estatistika eta zenbakietatik kanpo, batzuetan, indarkeria hori jasaten dutenek ez dutelako ez salatzen ez horren berri ematen ere eta, bestetan, gizarteari berari eta, bereziki, gizarte eragileei, zaila egiten zaielako harreman lesbiko eta homosexualetan indarekeriarik dagoenik sinistea.

Koaderno hau LGTB¹ biztanleei eta gizarte eragile guztiei dago zuzendua, bertan jasotzen dugun material berezituak homosexual eta lesbianen harremanetan gertatzen den indarkeriaren berri ematen baitu.

Material honek honako helburu hauek dauzka:

Homosexualen eta lesbianen harremanetan gertatzen den intrageneroko indarkeria egoerak bistarazi eta jakinaraztea.

LGTB biztanleen eta, oro har, gizartearen sentiberatasuna eta kontzientzia piztea, indarkeriaren errealitatea uste baino gertuago daukagulako.

LGTB pertsoneri indarkeria mota horretan nabarmentzen diren alderdien berri ematea, biktima-erasotzaile kontzientzia pizten laguntzeko eta, hala, gerta litezkeen tratu txarren eta indarkeriako egoerei aurre hartzeko.

Indarkeriaren alorrean lan egiten duten erakunde eta gizarte eragileei orientabide eta laguntza gisa baliatuko dituzten mekanismoak ematea, indarkeriaren biktima direnei behar bezalako arreta eman diezaieten.

1 LGTB: lesbianak, gayak, transexualak eta bisexualak.

1. Zer da intrageneroko indarkeria?

Intrageneroko indarkeria sexu bereko pertsonen maitasun eta sexu harremanetan modu eta maila desberdinetan gertatzen den indarkeria da.

Bi pertsonen arteko maitasun eta sexu harremanetan gertatzen den indarkeria agintea baliatzeko modu bat da. Erasotzailearen helburua biktima dominatzea eta kontrolatzea da.

2. Indarkeria motak.

Tratu txarren egoera baten aurrean esku hartu ahal izateko, pertsona batek tratu txarrak jasotzen dituen ala ez bereizten jakin behar du eta zein modutan azaleratzen diren tratu txar horiek.

Izan ere, "indarkeria" hitzarekin lehenik bururatu ohi zaiguna eraso fisikoa da.

Ordea, eraso fisikoz gain, badira eraso psikologikoa eta ahozko eraso ere, lagun hurkoa menderatzeko jarrerak baitira horiek ere, hala nola, irainak, mehatxuak eta nahita adierazitako mesprezuak, helburu bakarra beste pertsona mintzea eta sistematikoki kontrolpean edukitzea delarik.

Mendean hartzeko, beste pertsona sozialki bakartu edota ekonomikoki kontrolpean hartu ohi da.

Hona hemen egoera jakin batzuetan egondako indarkeriaren adibide batzuk:

Etengabe beste pertsonaren autoestimua mintzen saiatzea: *"alfer bat haiz eta ez duk/n ezertarako balio"...*

Beste pertsona kontrolpean hartzea, otzan eta kontrolatuta edukitzeko mekanismoak baliatuz: *"Ez di(n)at gogoko hi lagunekin ateratzea", "gaur deitu haudanean ez didak/n telefonoa hartu: non hintzen?"...*

Sexu bereko pertsonen arteko harremanetan, beste pertsonaren homosexualitatea edo lesbianismoa bera izaten da pertsona hori kontrolpean edukitzeko aldagaietako bat, haren sexu-joera jendaurrean zabalduko delako mehatxua erabiltzen baita askotan.

Izan ere, gure gizartean beren joera aitortzera ausartzen ez diren gay eta lesbiana asko dago oraindik ere eta faktore hori bestearengan kontrola edukitzeko elementu bat gehiago bihur daiteke modu sotil eta, gehienetan, batere ez agerikoan. Hala, biktimak duen beldur hori, inguruneak bere “egia ezagutuko” ote duen, “Damoklesen ezpata” moduko zerbait bihurtzen da, eta ez aurrera ez atzera uzten du biktima.

Gizonen arteko harremanetan bada beste indarkeria egoera mota bat, erasotzaileak biktima intimidatu baitezake. VIH-HIESArekin dauka zerikusia, eta mehatxuak honelakoak izan daitezke: *“HIESA baldin bazeukaat, hik pasatuta, seguru, eta akabatu egingo haut”, “argi ibili, edozein momentutan HIESAz kutsatuko haut eta”,...*

3. Alderdi legalak.

Genero-indarkeriaren aurkako lege integrala.

Genero-indarkeriaren inguruan, etxeko indarkeria edota emakumearen aurkako indarkeria ere deitua, geroz eta kontzientzia handiagoa dago eta geroz eta neurri gehiago hartzen dira gizarteko esparru guztietan. Emakume bat haren bikote edo senarrarengandik erasotua baldin bada, babeserako mekanismo batzuk jartzen dira abian, hainbat erakunde eta instituzioek hala legeztatuak (askotariko babes-mekanismoak izaten dira, besteak beste, legeari dagokionez, lan-munduari, osasunari, gizarte-zerbitzuei edota alderdi ekonomikoei dagokienez). Baina, zer gertatzen da erasotua dena emakume bat baldin bada, baina erasotzailea haren emakumezko bikotea edo emaztea baldin bada? Indarkeriaren aurkako Lege Integralak arautzen dituen babes neurri berberak aplikatzen al zaizkie orduan ere?

Intrageneroko indarkeria egoerak (sexu bereko pertsonen maitasun eta sexu harremanetan gertatzen direnak) errealitate ikusezina dira eta Genero Indarkeriaren aurkako Lege Integralak ez ditu aintzakotzat hartzen. Legearen testua aztertuz gero, indarkeriaren arazoa arautzerakoan lesbiana eta gayez ahaztu egin direla ondorioztatzen dugu.

Hara hemen legean aurki ditzakegun adibideetako batzuk:

1. artikuluan adierazten denez, Legearen helburua da indarkeriaren aurka jardutea, bazterketaren, desberdintasun egoeraren eta gizonezkoek emakumeekiko daukaten agintearen isla delako.... Orduan, zer gertatzen da bi emakumez osatutako bikote edo ezkontideen arteko indarkeriarekin? Bikote horietan ez al da aginte, jazarpen eta menderatze egoerarik? Dirudienez, sozialki eta legalki zaila da halakorik ikustea.

Arauren testuak biktinez hitz egiten duenean femeninoan hitz egiten du beti eta erasotzaileaz diharduenean, berriz, maskulinoan, beraz, araua zorrotz aplikatuz gero, lesbianek ez lukete erasotzaile izateko inolako aukerarik soilik emakume direlako?

Legeak ez du errealitate hori ez jasotzen ezta arautzen ere, beraz, babesik eza erabatekoa da, kasu bakoitza aztertu egin beharko bailitzateke, eta epaileak erabaki egin beharko luke, etxeko indarkeriako kasu baten moduan hartzen duen, aipatu legearen baitan, edota eraso arrunta moduan hartzen duen, eta azken horrek babes-neurri guztiak ez aplikatzea ekarriko luke: gayen kasuan, arretazentro batera joateko aukera galtzea, laguntza ekonomikoak galtzea etab.

Indarkeria egoera hauen inguruan dagoen ikusezintasuna hainbat arrazoirengatik gerta daiteke: a) biktimak edota erasotzaileak eurak ez dira biktima edo erasotzaile gisa

identifikatzen, b) salatze eta sexu-joera aitortzeko beldurra, c) gizarteko homofobia, askotan gizarte eragileei zaila egiten baitzaie erasotua izan den LGTB pertsonari laguntzea eta babestea.

4. Lekukotzak.

Indarkeria mota honi aurre egitea erraza ez dela badakigunez, bi pertsonen lekukotzak gehitu ditugu. Maider eta Gotzon² dira, ALDARTEra jo zuten laguntza bila.

MAIDER

“Gehiegi maitatzen dudala da nire arazoa. Duela hiru urte emakume zoragarria batez maitemindu nintzen eta ezagutu eta denbora gutxira elkarrekin bizitzen hasi ginen. Ni oso zoriontsu nintzen, maiteminduta nengoen, inoiz ez bezala, eta dena oso ongi zihoan gure artean. Hilabeteetan ongi baino hobeki ibili ginen eta ni munduko emakumerik zoriontsuena nintzen.

Jeloskorra zela eta hasi ziren arazoak. Hasieratik ez zuen gustuko nik neure lagunekin denbora pasatzea, haiekin hitz egitea, nire bikote ohia agurtzea,...ezta ambienteko tabernetan emakumeren batek ni begiratu edo nigana hurbiltzea ere. Hasieran serio antzean esaten zidan ez zuela gustuko ni beste neskengana gerturatzea, aurrerago, kasu handirik egiten ez niola ikusten zuzenez, gauza bera errepikatzen zidan baina, askotan, ukabila aurpegi aurrera altxatuz. Egia esan, jarrera hori hartzen hasi zenean ni ez nintzen haserretzen, uste bainuen asko maite ninduelako eta nitaz oso maiteminduta zegoelako egiten zuela hori. Baina egunetik egunera gauzak zaildu egin ziren eta eguneko 24 orduetan kontrolatzen hasi zitzaidan. Posta elektronikoa eta eskuko telefonoa ere kontrolatzen zizkidan. Horrela, pixkanaka-pixkanaka bitza pribatua edukitzeari utzi nion.

Behin batean nire bikote ohiak telefonoz deitu zidan berarekin gelditzeko, garai txar bat pasatzen ari zela eta

nirekin hitz egin nahi zuela, besterik gabe. Nik baietz esan nion eta arratsalde batez gelditu ginen hondartzan paseatzeko. Bikotea hondartzan agertu zitzaidan eta gurekin elkartu nahi izan zuen, baina nik esan nion ezetz, utz ziezagula une hori mesedez bakarrik. Kasu egin eta joan egin zen, baina etxera itzulitakoan zain neukan, oso haserre. Garrasika hasi zitzaidan, bultzaka. Azkenean, zaplazteko bat eman zidan eta etxetik alde egin zuen gau osorako.

Hurrengo egunean alai-alai etorri zitzaidan, gosaltzeko opilekin, ezer gertatu izan ez balitz bezala; enroilatu egin ginen eta hurrengo egunak zoragarriak izan ziren. Ni zoriontsu nintzen, uste bainuen momentu zailak gaindituak genituela. Baina handik pixka batera kontu berarekin hasi ginen berriz ere; inoiz baino jeloskorrago neukan. Azkenerako, ni ez nintzen inoiz bera gabe etxetik irteten, lanera joateko ez bazen. Ez nituen lagunak ikusten, ezta familia ez beste inor ere, dena iruditzen zitzaion gaizki.

Bikote bat baino gehiago izan badut ere eta haiekin elkarrekin bizitzen jarria banaiz ere, lanean oraindik ez dakite lesbiana naizenik, ezta nire amak ere, ez diot sekula kontatu. Nire lanaren nondik norakoak direla-eta, eta nire amagatik, asko kezkatzen nau lesbiana naizela jakin dezaten, eta beldur naiz. Hain zuzen ere, beldur hori erabiltzen zuen nire bikoteak. Geroz eta gehiago mehatxatzen ninduen, armairutik ateraraziko ninduela esanaz. Izorratzeko esaten zidan hori eta, hori zela eta, paralizatuta bezala nengoen.

Behin batean paseatzera irten ginen eta duela urte askotako lagun batekin egin nuen topo. Denbora luzea eman nuen harekin hizketan. Bikoteak oso haserre begiratzen ninduen eta amaitu nuenean berehala etxera itzuli nahi izan zuen; han oihuka hasi zitzaidan, ea zer nahi nuen nik emakume harekin, ea zertan ibiliak ginen lehendik, ea zergatik ez nion lehenago kontatu...bultzaka egin eta lurrera bota ninduen. Egongelako altzariak

hausten hasi zen eta ni txoko batean bildu nintzen, izutua, amaitu zezan itxaroten eta erasotu ez nintzala deseatzten. Lasaitu zenean etxetik irten zen eta lasai utzi ninduen. Beldur handiz bizitu nuen orduko hura eta orduantxe pentsatu nuen handik ihes egin behar nuela. Amaren etxera joan nintzen, gertatutako guztia azaldu nion. Amak berehala hartu ninduen etxean.

Oraindik ere amaren etxean nago eta gutxi gorabehera garbi dut ez dudala berarekin itzuli nahi. Baina deika eta deika daukat, batzuetan negarrez, barkamena eskatuz, ez duela berriz ere egingo. Lanera ere etortzen zait bila, eta hasieran bezain goxo azaltzen zait. Uzten badut hondoratu egingo dela esaten dit eta bere burua hiltzeko gai dela. Aldatu egingo dela agintzen dit, eta izugarri maite nauela. Egia esan, nik ere maite dut oraindik eta oraintxe ez dakit zer egin. Jendea aldatu egiten al da? Zalantza handiak ditut eta beldur naiz zer gerta daitekeen bere ondora itzultzen banaiz.”

GOTZON

“Elkarrekin hasi ginenean hark zalantzak zituen hasieran eta ez zuen gurea batere argi ikusten, neska batekin utzi berria zuelako, eta ez zuen norbaiten mende egon nahi. Aurrerago, ordea, ideiaz aldatu zuen eta gure harremana egonkorrago bihurtu zen. Itxura guztien arabera, dena ongi zihoan. Tipo liluragarria zen.

Nolanahi ere, hasiera-hasieratik oso jeloskorra zen. Hainbatetan utzi eta beste hainbatetan itzuli ginen, baina haren burua beti hasten zen “funtzionatzen”, obsesionatzen: ezkutuko zenbakiaz deitzen zidan, amarruak jartzen zizkidan, beste jendearekin gelditzen ote nintzen ikusteko eta, tira, kontuak gainezka egin zuen: mamuak ikusten zituen ez zeuden tokian, kontrola galdu zuen. Esan nion, gurea uztea nahi bazuen, ni ados, beharbada horixe izango zela onena, baina hark ez zuen onartzen gure harremana horretan amaitzerik.

Halako batean, oldarraldi bat izan zuen. Ordura arte

iraindu egin zidan, esaten zidan nik ez nuela maite, nahiago omen nuen beste tipoekin egon berarekin baino. Gaizki esaka hasten zen, nazkagarri bat nintzela, zerri bat, inozo bat. Baina, behin batean, etxera etorri zitzaidan, beheko atea gogor kolpatzen zuen eta txirrina jo eta jo zegoen. Nik ez nion atera ireki, baina bizilagun batek bai. Gora igo zen eta eman zituen kolpeekin ia-ia behera bota zuen atea. Halakoa izan zen sortu zuen iskanbila, ireki egin bainion atea, baina gertatu behar zena jakin izan banu, ez nuke halakorik berriz ere egingo. Mota guztietako irainak botatzen hasi zitzaidan. Ostikoka hasi zitzaidan, buruarekin sudurrean eman zidan eta handituta izan nuen, ubelduta egun askotan. Egongelan nuen mahaia bota zidan, biok elkarrekin gaudeneko argazkia hautsi zidan, landare bat txikitu eta joan egin zen, salaketarik jar ez niezaiola mehatxatuz.

Egun batzuen buruan oso damututa zegoela esan zidan, asko sentitzen zuela, bera ez zela horrelakoa, oldarraldi bat izan zuela. Maite nuen oraindik eta, minik ez egitearren, bere horretan utzi nuen gertatutakoa, eta ez nuen salaketarik jarri.

Egun batzuk geroago uneoro hasi zitzaidan telefonoz deitzen, edo mezu mehatxagarriak bidaltzen zizkidan: "hil egingo ninduela salatzen banuen" edota "kartzelatik irtetea dagoela baina hilerritik ez".

Jazarpena etengabea zen. Etxera etortzen zen, txirrina jotzen zidan goizeko zortzietan, bueltaka egoten zen behean... Ni beldurrez itzultzen nintzen etxera, ingurumaritan ibiltzen nintzen, aurrez aurre ez topatzearren, haren autoa han al zegoen ikusiz. Hain nazkatuta nengoenez, asteburuetan atera egiten nintzen. Behin batean, asteburu batetik bueltan itzuli nintzenean, etxeko atea txikituta aurkitu nuen, ezin izan nuen etxera sartu, eta gurasoenera joan nintzen. Ezin izan nien gertatzen zitzaidana ezkutatu eta dena kontatu nien. Orduan nire familia guztiarekin sartzen hasi zen eta nire ingurune guztiarekin: nire familia iraintzen zuen, telefonoz deitzen zien ...

BALIOETSI

Harremana hausterakoan, bere buruaz beste egingo zuela mehatxatzen zidan. Xantaia egin nahi zidan, errudun sentiarazi nahi niduen berekin itzul nedin. Oraindik ere uste du nik eskatu behar diodala barkamena.

Gaur egun, azkenean, gainditzea lortu dut. Oso garrantzitsua da norekin hitz egin edukitzea, norbaiti kontatu ahal izatea, laguntza eskatzea eta ez bakartuta gelditzea, bestela, galduta baitzaude”.

Zergatik gertatzen dira indarkeria egoerak sexu bereko pertsonen artean?

Sexu bereko pertsonen artean indarkeria egoteko arrazoiek ez dute zertan matxista deituriko indarkeria egoteko dauden arrazoietatik horren desberdinak izan behar. Homosexualen eta lesbianen arteko harremanetan, bestela pentsatzen den arren eta mito faltsuak dirauten arren, badira, baita ere, menderatzailearen eta otzanaren rola eta pertsona batek bestearekiko kontrola hartzen dueneko egoerak.

LGTB pertsonak harreman heterosexualei egokitutako rolekin identifikatuta sentitzen ez badira ere (tradizionalki emakumeari eta gizonezkoari egokitu zaizkion rolez ari gara), horrek ez du esan nahi jabetzako zenbait jarrera hartu ezin ditzaketarik.

Zergatik da errealitate ikusezin bat?

Salatzeko zailtasunak izaten dituzte eta, hori dela eta, zaila da arazoak benetan duen dimentsioaz ohartzea. Gaur egun ere, pertsona askori kostatzen da ingurunean homosexualitatea eta lesbianismoa aitortzea eta onartzea, eta beren gertuko inguruneari ere ezkutatu egiten diote beren sexu-joera (familiar, lagun, lanekoei...). Beraz, pertsona batek sexu bereko pertsonetara daukan joera eta, hala dagokionean, harremana ere jendaurrean erakutsi ez badu, nekez salatuko du lesgay harreman barruko indarkeria egoera.

LGTB pertsonak ez daukate biktima izan daitezkeelako kontzientziarik. Nire bikoteak eragindako indarkeriaren

BALIOETSI

biktima izan al naiteke? Indarkeria jasaten ari den pertsona bat egoera horretatik atera ahal izateko lehen baldintza da, bikotearen tratu txarrak jasotzen ari delako kontzientzia edukitzea. Horretaz gain, indarkeria zein modutan azaleratu zaion identifikatu behar du, indarkeriaren edota tratu txarren egoera hori gainditzen eta deuseztatzen lagunduko dioten neurriak hartu ahal izateko.

LGTB harremanekiko bazterketa soziala: oraindik ere homosexualitatea eta lesbianismoa zenbait alorretan gaizki ikusiak dauden moduan eta “bigarren mailako” pertsonatzat hartzen dituzten aurreiritziak dirauten moduan, indarkeria salatzen denean ere gutxietsi egiten da entzundakoa: *“ez da horrenbesterako izango”* edo *“urrunegi joan zara”*, dira entzuten diren erantzunetako batzuk, eta horrek areagotu egiten du egoera zail hori bizitzen ari den pertsonaren bazterketa eta bakardadea, eta zurrunbilotik ateratzea zailago bihurtzen da.

Gay eta lesbianen harremanei buruz dauden mitoak. Badira homosexualen eta lesbianen harremanei buruzko aurreiritzi batzuk, eta horiek zaildu egiten dute pertsona biktima dela ikustea. Mito faltsuak dira, eta ezinezkoa egiten dute sexu bereko pertsonen arteko bikote edo harremanetan indarkeria egon daitekeenik pentsatzea.

Hona hemen mito faltsuetako batzuk:

Lesbianen harreman guztiak femeninoa-maskulinoa eredu batean oinarritzen dira, eta indarkeria eragiten duena lesbiana maskulinoa izan ohi da.

Tratu txarrak ez dira, berez, tratu txarrak, baizik eta elkarrekin izandako eztabaida bat. Gay bikote batean ez dago indarkeria egoerarik, elkarri egindako erasoak baizik: ezin baita irudikatu nolaz menderatu eta eduki daitekeen kontrolpean gizon bat, gizon bati tradizionalki egokitu zaizkion ezaugarriak indarrarena, boterearena, agintearena... baitira.

Emakumeak mendekoak eta otzanak izan dira tradizionalki, beraz, emakumeen arteko harreman batean ez dago indarkeria egoerarik.

Lesbiana eta gayen harremanetan ez dago indarkeria egoerarik, bi pertsonak sexu berekoak izanik erabateko berdintasuna dagoelako.

Maitasun erromantikoaren mitoa eta horren ondorioak bikote harremanetan: indarkeria bultzatu, indartu eta sustatzen duen faktoreetako bat (jakina, ez bakarra eta ezta garrantzitsuena ere) gure kulturaren daukagun maitasun “erromantiko”aren eredua da. Maitasun ideal horren arabera, hainbat gauzari uko egin behar zaio, sakrifizioak egin behar dira, eta, beraz, gure norbanakotasuna, gure proiektu pertsonalak eta gure espazioa galtzen ditugu. Maitasun ideal horrek irainak eta sufrimendua jasan behar izatera garamatza, eta egoera horietatik irteteko ihesbideak bilatu beharrean, zentzugabeko irtenbide bitxiak hartzera garamatza, esate baterako, behin eta berriz bikotea barkatzea, hain zuzen, geure bizitzako ardatza den hori ez galtzearren: maitasuna.

Oso arrunta den mito suntsitzaile bat da pentsatzea biktima dela jasaten dituen tratu txarren eta indarkeriaren erantzule. Errealitatea da, ordea, tratu txarrak ematen dizkizun pertsona hori baino ez dela erasoaren erantzule.

Zure maitasun eta sexu harremanetan indarkeria bizi baduzu, irtenbide errazik ez dagoela dakizun arren, badira zeure burua babesteko egin ditzakezun gauza batzuk.

Tratu txarren biktima baldin bazara:

Ez begiratu beste aldera. Hitz egin norbaitekin. Kontua isilean gordetzeak bihurtzen du, hain zuzen, tratu txarrak ematen dizkizun pertsona hori boteretsuago. Askotan biktimek lotsa sentitzen baitute, eta ez dute nahi inork beren arazo pertsonalen berri izaterik.

Egoera konplexuak eta zailak diren arren, **ez pentsa ezer egin ezin daitekeenik** eta tratu txarrak ematen dizkizun horren aurrean erabat babesgabe zaudenik ere.

Ez zaitetz bakarrik eta ez zaitetz sekula bakarrik gelditu tratu txarren aurrean. Bilatu laguntza familiar, lagunengan edota hurbilen duzun LGTB erakundean.

Tratu txarrak ematen dizkizun horrekin bizi bazara, joan zaitetz etxetik, eta hori egiterik ez badaukazu, saiatu beti norbaitekin egoten, inoiz ez bakarrik. Eduki dirua gordeta.

Aldez aurretik pentsatu zer egingo duzun berriz ere erasotzen bazaitu.

Salaketarena pentsatu. Gizarte mailan eta legeei dagokienez dauden arazoak egonda ere, eta beldurrak beldur: salatzea indarkeriaren zurrunbilotik irteteko pauso bat da.

Lesbiana bazara, zure herrian emakumeen kontrako indarkeria kasuetarako dauden baliabideak zure kasuan ere aplikagarriak dira. Jakin zein diren laguntza-telefonoak eta kasu horietarako zure ingurunean dauden baliabideak.

Gizarte eragilea baldin bazara:

Garrantzitsua da egoera eta errealitate horiek atzematea eta, batez ere, sexu bereko pertsonen arteko harremanetan ere gerta daitezkeelako kontzientzia hartzea.

Arreta berezia eskatzen dute bi gizonen arteko harremanetan gertatzen diren tratu txarren kasuak, naturalago ikusten baita tratu txarrak egon direla biktima emakumezkoa baldin bada. Ez gaude ohituta gizonezkoak biktima gisa ikustera, hain zuzen, hainbat ezaugarri egokitzen dizkiegulako, hala nola, indarra, eta horrek aukera hori pentsatu edo onartzea galarazten digu. Ordea, gizonezko batek beste bat kontrolatu, mehatxatu edota mendean har dezake.

Zabaldu dokumentu honek duen informazioa eta izan prest zure herrian eskuragarri dauden LGTB baliabideen zerrenda bat, indarkeriaren biktima den pertsonari bidea errazteko.

Egin kasuen jarraipena eta izan zuzeneko harremana biktimak bideratu dituzun LGTB baliabideetako pertsonekin.

Aldarteren Baliabideak

ESPAZIOA: INDARKERIARIK GABEKO TXOKOA

www.aldarte.org/rinconsinviolencia web gunean sartuta, **“Indarkeriarik gabeko txokoa”** atalean honako hauek egin ahalko dituzu: 1) harreman lesgayetako indarkeria aztertzen duten dokumentuetara sartu, 2) galdeketa bat egin, tratu txarrik jasotzen duzun ala ez atzemateko, 3) laguntza eta babesa eskatu, 4) galdera edo iradokizunen bat egin, 5) **IKUSI, BALIOETSI, EKIN: indarkeria lesbianen eta homosexualen harremanetan** izeneko gure dokumentua jaitsi 6) foroan bitartez beste gay eta lesbianekin harremanetan jarri.

COUNSELLING

Counselling hitzak laguntza eta aholkularitza esan nahi du. Izan ere, pertsona gehienok geure arazoak konpontzeko gai gara horretarako aukerarik ematen bazaigu. Bakarka hartzen ditugu pertsonak, aurrez aurreko elkarrizketa izaten da eta aldez aurretik hartu beharra dago hitzordua.

LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA

Laguntza psikologikoaren bitartez, gaiaren inguruan hitz egiten da bakarka eta aurrez aurreko elkarrizketa baten bitartez. Aldez aurretik hartu behar da hitzordua.

LEGE AHOLKULARITZA

Lege aholkularitzako zerbitzua aurrez aurre jaso daiteke (aldez aurretik hitzordua hartuta) edota web gunean begiratuta.

BIBLIOGRAFIA ETA BIDEOTEKA

Gure dokumentazio zentroan material asko daukagu (liburuak, bideoak, DVDak, egunkarietako albistek etab.) intrageneroko indarkeriari buruz.

Gurekin harremanetan jartzeko:

ALDARTE

“Gay, Lesbiana eta Transexualen Arretarako Zentroa”

Berastegi kalea, 5-5, 8 eta 9 bulegoak

48001 Bilbao - Bizkaia

Posta elektronikoa: aldarte@aldarte.org

Web gunea: www.aldarte.org

Orduategia: astelehenetik ostiralera: 10etik 13ra eta 17:30etik 21:30era

